

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Transmisioak

Ondarea eta sorkuntza berria

Transmisioak

Ondarea eta sorkuntza berria

ERAKUSKETA. 2018/06/14 – 2018/09/02

«Cristóbal Balenciagaren ondarea sorkuntza berri batera zabaltzea izan da helburua, goi-mailako joskintzaren maisu izan zenaren lana definitzen duen gai baten ikuspegitik abiatuta: siluetaren iraultza.»

MIREN VIVES, Cristóbal Balenciaga Museoaren zuzendaria

Cristóbal Balenciagaren ondarearen garaikidetasunak gaur egungo sortzaileen inspirazio izaten jarraitzen du inondik ere. Ildo horretatik, 2018. urte honetan, Ondarearen Europar urtea izanik, Museoaren garrantzizko xedea izango da belaunaldi berriei haren lanaren, teknikaren eta balioen ezagutza transmititzea.

Transmisioak izeneko hezkuntza eta sorkuntza proiektuaren bitartez, Moda Diseinuaren arloko nazioarteko 6 eskola ospetsuenetako irakasleak eta ikasleak bildu dira: Central Saint Martins (UAL, Londres, Ingalaterra), The Royal Danish Academy of Fine Arts (Kopenhague, Danimarka), Iceland Academy of the Arts (Reykjavik, Islandia), Shenkar College of Engineering, Design and Arts (Ramat Gan, Israel), Seika Kyoto University (Kioto, Japonia) eta Parsons the New School of Design (New York, Estatu Batuak), Cristóbal Balenciagaren filosofian, tekniketan eta testuinguru biografikoan murgilduko dituen esperientzia baten inguruan.

Zentroa bisitatu, bertako artxiboko pieza jakin batzuk zuzenean ezagutu eta hainbat baliabide digital aztertu ondoren, esperientzia horretan parte hartu duten 150 ikasleek beren ikerketa eta sorkuntza proiektua osatu dute, Balenciagaren lanaren interpretazio guztiz pertsonalarekin.

Prozesu horren emaitzak taldeko erakusketa batean ikusiko dira, ekainaren 14tik irailaren 2ra bitartean. Erakusketa horren bitartez, proiektuan parte hartu duten ikasle guztien artetik hautatuko 26 sorkuntza proposamen erakutsiko dira.



Emil Bang Hoffmann.
Royal Danish Academy of Fine Arts.



Proiektua

«Moda diseinatzaile eta hezitzaile gisa, beharrezkoa iruditzen zait hezkuntzaren bitartez modaren sistemak aldatzea, Balenciagaren forma iraultzaileak eta desagertzen ari diren lanbide tradizionalak nabarmenduz, eta, orobat, diseinatzaile gazteak animatuz teknika haiek beren lanean txertatzera. Proiektuak modaren jardunbide berriak garatu ditu, ikasleen pentsamoldea aldatzeko; horretarako, ikasgelatik atera, eta museoko artxiboetara eraman ditu, Balenciagak artisau gisa zuen trebetasun apartaren eta diseinu berritzailearen balioak irakasteko. Ikasleek barneratuko duten diseinuaren ikuspegi berri horrek eragina izango du, inondik ere, etorkizunean hartuko dituzten erabakietan, Balenciagaren ezagutzaren transmisioari esker.»

ELISA PALOMINO, BA Fashion Print-en arduraduna Central Saint Martins-en eta proiektuaren hezkuntza aholkularia



Conner Ives.
Central Saint Martins – UAL.

Museoak 2016. urteaz geroztik sustatu duen Proiektu hau modu naturalean txertatu da eskola parte-hartzaileen curriculumaren barruan, eta, era horretara, Museoa erreferentziazko gune bihurtu da diseinatzaile belaunaldi berrientzat; izan ere, hari esker, jostunaren jatorria, ingurunea eta lanak zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera dute ikasleek.

Ikasle parte-hartzaileek beren irakasleekin batera bidaiatu dute Getariara Cristóbal Balenciagaren ondarea ezagutzeko helburuarekin, museoan bertan sortzailearen lanaren zuzeneko azterketa egiteko eta haren bildumen artxibora sartzeko aukera edukiz; era horretara, maisuaren gaitasun tekniko eta sortzailearen lan erakusgarriak aztertzen dituzte.

Banakako proiektu gisa, ikasle bakoitzak zeinek bere ikerketa eta sorkuntza prozesua garatu du, bi hilabetez, bere eskolan bertan, eta prozesu horren ondorioz barneratutako ezagutzetan inspiratutako outfit bat gauzatu dute, azkenik. Prozesu horren ondorioz sortutako lanak irakasleek zein proiektuaren arduradunek baloratu dituzte, eta, balorazio horren ondorioz, 26 sorkuntza lan hautatu dira, hain zuzen ere, Museoan ikusgai daudenak orain.

Norea Persdotter Wallstörn.
Iceland University of the Arts.



Erakusketa



Ofri Mazza.
Shenkar,
Engineering,
Design, Art.

«Through working on the project, inspired by Cristobal Balenciaga's constructive design, his way of expressing fit, volume, and atmosphere, I learned the distance between body and cloth as well as the beauty of volume made constructively. I had a very fruitful experience which I can make excellent use in my future works.»

FUKUTA KAWAGUCHI, ikaslea

Museoan gordetako ondarearen, transmisio hauetan inplikaturik dauden irakasleen irakurketen eta sortzaile belaunaldi berri baten talentuaren arteko elkarbizketa biltzen da erakusketa honetan. Gaiari dagokionez, zalantzarik gabe Cristóbal Balenciagak modaren historiari egindako ekarpen nagusietako bat izan zen alderdian jartzen du proiektuak arreta: emakumeak identifikatuko zituzten silueta berriak baliatu zituen, ehunez, airez eta gorputzez osatuak.

Christian Diorrek, New Look deituaren bitartez –hain zuzen ere, XIX. mendeko silueta erromantikoaren berriraketa bitartez–, mundua erakarri zuen urte berean, bestelako bide batetik jo zuen Balenciagak, eta lerro arinen, bizkar kurboen eta garai hartako arau guztiak hautsi zituzten bolumenaren aldeko hautua egin zuen. 1947ko Tonneau lerroa, 1951ko semifita, 1953ko globo-gona, 1955eko tunika eta 1957ko zaku-soinekoa edo baby-doll delakoa benetako mugarri izan ziren mendebaldeko modaren historian.



Ikasleen sorkuntza lanak lau talde tematikotan banatzen dira, Cristóbal Balenciagak bere karreraren zehar aztertutako gaiei –siluetaren iraultza– eta beste hainbat alderdiri dagozkienak. Jostunak jostintzan egindako lanaren oinarria, material berrien erabilerari dagokionez egindako berrikuntzak eta silueta berriak txertatzeko eta, hortaz, emakumearen gorputzaren irakurketa berriak egiteko gaitasuna.

Joskintza berrinterpretatuz

Joskintza eta Cristóbal Balenciaga, batetik, eta hark moda ulertzeko eta sortzeko zuen modua, bestetik, ezin dira elkarrengandik bereizi. Haren teknikaren azterketatik abiatuta, gaur egungo bizitza estiloetara egokitutako formula berriak asmatu litezke.

Estanpatuak eta materialak aztertuz

Cristóbal Balenciagak oso ondo ezagutzen zituen ehunak, eta gaitasun handia zuen haien ezaugarri onenak baliatzeko; etengabeko azterketa-prozesu baten bitartez, konfiantzazko bere hornitzaileen berrikuntza teknikoak eta sorkuntzaren alorrekoak txertatzen joan zen. Material berriak lantzeko gaitasuna eta estanpatuen tratamendu artistikoa dira atal honetako proposamenen fokua.



Formekin esperimentatuz

Cristóbal Balenciagak modaren historiari egindako ekarpen handiek zerikusia dute hark silueta berriak eta, hedaduraz, emakumezkoaren gorputzaren irakurketa berriak txertatzeko gaitasunarekin. Testuingurutik ateratako gorputz formen joko hori da transmisioak proiektuaren mamia.

Muturreko siluetak

Cristóbal Balenciagak isilean egiten zuen iraultza – esaten zuen Hubert de Givenchy–, eta, bere lerroetan koherentziari eusten bazion ere, urtetik urtera bilakarazi zituen, muturrera eramateraino.



Maya Hacohen.
Shenkar, Engineering, Design, Art.

Jin Xie.
Central Saint Martins – UAL.

Nitsan Biran.
Shenkar, Engineering, Design, Art.

Eskola parte hartzaileak

Proiektuak hainbat jatorritako eta nazioartean ospe handia duten moda diseinuko eskoletako irakasleak eta ikasleak elkartu ditu. Horrez gainera, Bilbao International Art and Fashion (Bilbao, Espainia) plataformak parte hartu du proiektuan, sortzaile berrientzako prestakuntza programaren bitartez, eta 12 euskal diseinatzaile ere sartu ditu.

CENTRAL SAINT MARTINS - UAL

www.arts.ac.uk/csm

THE ROYAL DANISH ACADEMY OF FINE ARTS

www.kadk.dk

SHENKAR - ENGINEERING. DESIGN. ART

www.shenkar.ac.il

PARSONS THE NEW SCHOOL

www.newschool.edu/parsons

ICELAND UNIVERSITY OF THE ARTS

www.lhi.is

KYOTO SEIKA UNIVERSITY

www.kyoto-seika.ac.jp

BILBAO INTERNATIONAL ART AND FASHION

www.biaaf.com

Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga Museoa
eta Aldamar jauregia.
© Cristóbal Balenciaga Museoa

**Cristóbal Balenciaga
museoak 2011. urteko
ekainaren 7an
zabaldu zituen ateak.
Jostunaren jaioterrian
dago kokatua, Cristóbal
Balenciagaren
lehenengo
prestakuntza-urteen
eta heldutasun
profesionalaren
oroimenez eta modaren
munduari egindako
ekarpenak ulertzeko
helburuarekin.**

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da –3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Bunny Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Rethy printzesa, Grace Kelly edota Madame Bricardek, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

Informazio gehiagorako

ZURIÑE ABASOLO IZARRA

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T 943 004 777

M 647 410 775

MUSEOAREN ORDUTEGIA

EKAINA, IRAILA, URRIA

Asteartetik igandera 10:00-19:00

UZTAILA, ABUZTUA

Astelehenetik igandera 10:00-19:00

AZAROA-URTARRILA


Asteartetik igandera 10:00-15:00

www.cristobalbalenciagamuseoa.com/transmissions

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia/ San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18' 6.92" N
2° 12' 18.77" W



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Getariako Udala